

Angolako Gobernuak «erabateko laguntza» emango die Nazio Batuetako sorosleei

UNITA gerrillak gogor erasotzen segitzen du, eta 35 lagun hil dira gutxienez

Agentziak / Luanda

Angolako gatazka berriro gordintzen ari da, eta erdialdeko borroka gogorak iparraldera hedatu dira. Nazio Batuek, berriz, talde bat bidaliko dute bota dizkieten bi hegazkinetako bidaiarien bila, eta Angolako Gobernuaren laguntza jasoko du.

ERRESKATE talde bat bidaliko du Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Angolara, azken bi asteetan herrialde horretan bota dizkieten bi hegazkinetan zihoazen pertsonen bila, Benon Sevan Nazio Batuetako Segurtasun zuzendariak atzo jakinarazi zuenez. Angolako Gobernuak sorosle talde horri «erabateko babesa eta laguntza» eskaini diela erantsi zuen, gainera, Sevaneke.

Jakina den bezala, joan den astean NBEko hegazkin bat bota zuten Angola erdialdean, eta gauza bera gertatu zen astelehenean beste hegazkin batekin. Angolako Gobernuak eta Nazio Batuen informazioen arabera, Angolaren Erabateko Independentziarako Batasun Nazionala (UNITA) gerrilla izan da bi hegazkin horiek bota dituenak. UNITAko iturriek, hala ere, gezurtatu egin zuten, baina nazioarteko analisten arabera, horixe da hipotesirik fidagarriena. Izan ere, Nazio Batuek 48 orduko su-etena eskatu diote UNITAri hegazkinetako bidaiariak jasotzeko, baina haiek ez dute onartu.

Angola erdialdean bota zituzten bi hegazkinak, hau da, UNITAren eta Gobernuaren



GLYN GENIN / AP

Angolan bota dituzten Nazio Batuetako hegazkinak bezalako bat, orain egun batzuk, Ingalaterrako itsasertzean.

ren aldeko tropen arteko borroka gogorrenak gertatzen ari diren tokian. Horrexegatik, Nazio Batuek bidaliko dituzten sorosleek lan gaitza izango dute.

Hala ere, Sevaneke atzo esan zuen lasaiago daudela Jose Eduardo Dos Santos lehendakariarekin hitz egin ostean, Gobernuak lana errazteko ahalegin guztiak egingo dituela agindu baitzuen.

Angolako Armadako iturrien arabera, aurrena bota zuten hegazkinetako hamalau bidaiariak bizirik daude, eta UNITAko bahituta ditu Bailundoko kuartel nagusian. Bigarren hegazkinean, berriz, bederatzi pertsona zihoazen, eta inork ez du haren berririk. Alde horretatik, azpimarratzekoa da aita-semeak

■■■ Angolako Armadaren arabera, aurrena bota zuten hegazkinetako hamalau bidaiariak bizirik daude, eta UNITAko ditu bahituta

■■■ Hegazkinen hondakinak borroka gogorrenak gertatu diren tokian daude

direla erasoon biktimetako bi. Hain zuzen ere, John Wilkinson aita zihoan aurrena bota zuten hegazkinean, eta Hilton semea bigarrenean. Hego Afrikakoak dira aita-semeak.

Bestalde, erdialdean ez ezik, iparraldean ere gogortzen ari dira borrokak. Erdialdeko eskualdeetan Gobernuaren aldeko tropak ari dira nagusitzen, eta, ondorioz, iparraldea bonbardatzearekin ekin dio UNITAko.

Iturri ofizialek atzo azaldu zuten, Malanje hiria artilleria astunarekin erasotzen ari dira gerrillariak, eta gutxienez 35 pertsona hil dira bonbardaketa horien ondorioz. Azken egunotan 200 pertsona inguru hil dira Angolako Armadak eta UNITAko izan dituzten liskarretan.

Errebolitariak Freetownen sartu dira, Sierra Leonako hiriburuan

■ Hala ere, egoera kontrolpean duela dio Gobernuak, eta ez dagoela larritzeko arrazoirik

Agentziak / Freetown

FREETOWN hiriburuararen erdialdera sartzea lortu zuten atzo errebolitariak, eta su eman zieten Gobernuaren eta Poliziaren egoitza nagusiei. Hala ere, Sierra Leonako Gobernuak lasai egoteko esan zien irratir bidez herritar guztiei, egoera kontrolpean dutela eta ez dagoela larritzeko arrazoirik.

Lekuko azalpenak oso bestelakoak ziren, ordea. Hiriburuan nahasmena zela nagusi esaten zuten, eta ez dagoela batere argi noren menpe dagoen hiria. Freetowneko biztanleek azaldu zuten ECOMOgeko tropak, Afrika Mendebaldeko Elkarte Ekonomikokoak, ez zirela ari errebolitariari aurre egiten.

Iturri horien arabera, errebolitariak beren menpe dituzte Estatuaren Etxea eta Freetowngo kartzela, eta preso asko libre utzi dituzte.

Sierra Leonako gatazka 1997ko maiatzean hasi zen, militar talde batek estatuko kolpea eman eta Ahmed Tejan Kabbaha hauteskunde bidez aukeratutako lehendakaria boteretik kendu zuenean. ECOMOgeko tropak bidali zituen orduan Angolara, eta iazko martxoan berriro Kabbaha boterean jartzea lortu zuten.

Orduetik gerran daude kolpisten aldeko errebolitariak eta ECOMOgeko tropak.

laburrean

KANPUTXEA

■ **Gobernuak ez du indarrezko neurririk hartuko damututako khmer gorriak atxilotzeko**

JIEU SAMPHAN eta Nuon Chea Khmer Gorrien gerrillako buruzagi damutuak atxilotzeko ez duela indarkeriarik erabiliko jakinarazi zuen atzo Kanputxeako Gobernuak. Izan ere, neurri hori hartuz gero berriro ere gerra zibila piz daitekeela uste du Hun Sen lehen ministroaren gobernuak. x

K U B A

■ **Castroren kontrako hiru salaketa jarri dituzte Frantzian**

AUGUSTO PINOCHETEN kasua dela-eta sortutako jurisprudentzia aintzat hartuta, Fidel Castro Kubako lehendakariaren aurkako salaketa jarri dute Parisko epaitegi batean bi kubatar eta frantziar batek. Torturak, bahiketa, asasinatzea eta droga trafikoa leporatzen dizkiete hiru pertsona horiek Castrori. x



NASSER SHIYOUKI / AP

Palestinar bat hil dute soldadu israeldarrek.

Zisjordaniako Hebron hirian, gizona bat hil zuten tiroka soldadu israeldarrek atzo. Soldaduek emandako azalpenen arabera, pertsona hori euren gana korrika zihoala ikusi zuten, eta pistola bat zeramala iruditu zitzaizkien. Horregatik egin zuten tiro, adierazi zuten. Gero jakin zen eskuan zeramana jostailuzko pistola bat zela.